

EUSKAL NORTASUNA ETA EUSKARA: autore ezberdinen ikerketak.

Lan honen helburua euskal nortasuna eta euskararen inguruan egindako ikerketa lanak aurkeztean datza. Hasiera baten, ikerketa ezberdinak plazaratu nahi nituen sarrera bezala baina lantzen joan ahala geroz eta interesgarriagoa iruditu zait eta azkenean, 1980ko hamarkadaz geroztiko korronte ezberdinek burututako azterketak komentatzea bide egokiena iruditu zait.

Egia esan, hainbat idatzi da 1980ko hamarkada baino lehenago baina gaur egungo egoera azaleratu nahiko nuke. Lehendabizi antropologoak izan ziren gai hau lantzen zutenak. Barandiaranek bezala, hainbatek euskara euskal identitatearen kategoriarik garrantzitsuena gisa hartu zuten, euskaren funtzioa bereizgarria eta mugatzailea delako, geografikoki aldamenean dauzkan hizkuntzetatik oso ezberdina izateaz gain Euskal Herriaren ondare eskusiboa ere baita. 70. hamarkadaz geroztik, soziologoak izan dira bereziki Euskal Herrian euskararen inguruko azterketak burutu dituztenak.

Lan hau burutzeko Paulo Iztuetak¹ EHU/UPVko Donostiako Udako XII. ikastaroetan emandako aurkezpen hitzaldia izan dut oinarritzat eta bidai laguntzat. Berak aipatutako obrak izango ditugu mintzagai nagusi.

Korronte eta diziplina ezberdinak trataera kuantitatibo eta ez-kuantitatiboaren irizpidearen arabera bereiztuak izango dira. Alde batetik, ikerketa kuantitatiboetan ikuspegi soziologikoa eta psikologikoa gailenduko da helburutzat inkesta eta elkarrizketa bidezko informazioa biltzea duena. Bestetik, azterketa ez-kuantitatiboan soziologia eta soziolinguistikako alorretik bideratuta eta gizarte egitura aztertzeko helburuz eredu historikoa eta tipologikoa erabiltzen du.

¹

“Euskal nortasunaren bila: Topaketa kritikoa” Paulo Iztueta Armendáriz (17. or)

I. AZTERKETA KUANTITATIBIOA:

Aipatu bezala ikuspegi soziologikoa eta psikologikoa nabarituko dira hurren aipatuko diren ikerketa ezberdinetan. Nazionalismoaren eta euskararen gizarte errepresentazioak nola ematen diren da aztergai nagusia atal honetan.

1. EUSKAL NAZIONALISMOAREN ESENTZIALISMOA

Leioako Soziologi Fakultateko hainbat irakaslek eta ikaslek ere euskal nortasunari buruzko hainbat lan argitaratu dituzte azken urteotan. Paulo Iztuetak² aipatzen du "eskola moduko zerbait" osatzen dutela eta arrazoitzeko hiru ezaugarri hauek aipatzen ditu; alde batetik, talde lana osatuz agertzen dira argitalpenetan bai Ander Gurutxaga bai Alfonso Pérez-Agote bai J.A. Garmendia eta abar luze bat; bestetik, euskal nortasunari buruzko guztia sistemaz lantzen dute; eta azkenik, oinarri teoriko antzekoak dituzte euren azterketek.

1.1 Euskaltzale eta nazionalisten identifikazioa.

José A. Garmendia, Francisco Parra Luna eta Alfonso Pérez Agote, elkar lanean egindako *Abertzales y Vascos* (1982) aztergai izango dugu.

Lan honek euskaltzale eta nazionalisten identifikazio prozesuen azterketa burutzea du helburu. Autoreek errealitate nazionala definitzen dute, ikergaiaren esparru teoriko-historikoa ahalik eta zehaztasun handienarekin arrazoitzera doaz. Alde teorikoak garrantzia berezia dauka neurketa kuantitatibo arrazoitua lortu nahi zelako. 1980ko udan egindako inkesta baten emaitzak erabiliko dituzte euskal identifikazio prozesua aztertzeko.

Ikerketa honetan kontzeptualizazio konplexu eta iluna darabilte, Caro Barojak³ dioen bezala korapilotsua da.

1.2 Nazioa: subjektibitatearen objektibotasuna.

Atal honetan Alfonso Pérez-Agotek *La identidad colectiva: noción sociológica y dimensión política. Para una visión cualitativa de nuestra encuesta* izeneko lana aztertzea izango dugu helburu. Lehenengo eta behin nortasunaren kolektibotasuna mugatuko du eta ondoren, nazio nortasunaren nondik norakoak zehaztuko ditu.

Euskaldun bati bere buruaz zer pentsatzen duen galdetzea euskal nortasunaz galdetzearekin parekatzen du berdina dela esanez.

² "...Leioako soziologi Fakultatea biziki emankor izan da euskal nortasunari buruzko argitalpenetan, euskal nazionalismoari eta hizkuntzari eskuian dizkien hainbat lanen bidez. Esan ere esan daiteke estola antzeko zerbait osatzen dutela..." Paulo Iztueta, op. cit..

³ <Los autores aplican técnicas sociológicas al estudio de una cosa tan oscura como el estudio de la identidad colectiva. Más oscura cuanto más derivaciones políticas modernas tiene> (<<Prólogo>>, op. cit., 6. or)

Esan beharra dago nortasun kolektiboa definitzeak arazoak dakartzala baina ikuspegi historikotik edo metafisikotik aztertuz gero, ondorioak ezberdinak dira. Esentzialismoan⁴ jausten da.

1.3 Ekonomia, faktorerik erabakigarriena

J. A. Garmendiaren *Identificación vasquista y nacionalista en Euskadi* atala plazaratuko dugu. Oinarrian gaur egungo ekonomia kontuan hartuz ez dio etorkizunik ikusten euskal independentziari. Honela dio garmendiak:

<En Europa es cada vez más difícil explicar y legitimar el independentismo como fórmula adecuada para recoger el requisito de la independencia> (Garmendia, op. cit., 41.or)>

Proposamen honen aurrean Paulo Iztuetak galdera bat botatzen ditu "arrazoi horrek balio izatekotan, ez al du berdin-berdin balio estatu-nazioentzat ere? Multinazionalak hainbeste indartu diren une honetan, zein irizpide identifikatzen ditu egungo estatu mugak?"

2. EUSKAL NAZIONALISMOAREN ARRAZIONALTASUNA

La reproducción del nacionalismo. El caso vasco. Perez-Agote, Cis/Siglo XXI, Madril 1984. Euskal nazionalismoaren erreproduzioaz ari da, frankismo garaian kokatuta. Hiru modu azpimarratzen ditu kontzientzia nazionalista azaleratzeko: familia, eliza eta lagun artea. Hiru esparru hauetan euskal nazionalismoaren korrante ezberdinak loratzen doaz.

Familiaren inguruan, azpimarratzen da famili nazionalistetan ematen zen frustrazio egoera. Beldurra zen nagusi bai fisikoki eta bai kulturalki ere. Euskaraz hitz egitea eta edozein euskal ikur debekatua zegoen. Gehiago edo gutxiago baina euskal hiztun askok kalean euskara erabiltzeari uko zioten. Etxe barnean, ordea, joera ezberdinak eman ziren batzuk etxean euskara hizkuntza bakar bihurtu zuten bitartean beste batzuk, ondorengotasuna moztuz seme alabei euskara irakatsi ere ez ziotenak. Famili nazionalistak ezaugarri bi zuten nagusiki alde batetik, kulturarekiko eta ekintza politikoeikiko sensibilizazioa eta bestetik, oso erlijiosoak izatea. Nazionalista sentimendua erradikalizatu bazen ere seme alabetan, ez zen berdin jaso erlijioarekin hau baztertuz.

Elizaren eragina ere garrantzitsua da Euskal Herriaren historian eta nola ez, frankismoan ere. Elizaren baliabideak askotan izan dira erabiliak errepresioaren aurrean "inmunitate" gune bezala. Hainbat batzar, sindikaturen errebindikazio leku, euskaltegi eta abar bihurtzen ziren elizak.

Azkenik, lagun artea edo komunagoa den koadrila dugu. Honela definitzen du Perez-Agotek:

<La cuadrilla constituye un microcosmos de funcionamiento intermitente en la vida cotidiana: las vacaciones, los fines de semana y el rato de ocio a últimas horas de día. A una determinada edad pueden ser mixtas [...] la forma más caracterizada, desde nuestro punto de vista, en

⁴ <Este término evoca igualdad consigo mismo, identidad fundamental, algo que hace que una cosa sea cosa y no otra> (Pérez-Agote, op. cit., 14. or)

barrio y pueblos, ha sido la cuadrilla masculina cuya actividad central en la vida cotidiana es "el poto", o "txikiteo".> (Perez-Agote, op. cit. 108. or.)

Koadrilaren politikarekiko atxikimendu sendoa 60 eta 70. hamarkadan ematen da bereziki.

70 hamarkadan, hau da, frankismoaren ondorengo egoeraren jarraipena Pérez-Agotek ematen dio *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo* J. Azkona, A. Gurutxaga eta F. Llera-ren lankidetzarekin. Bertan 1984ko inkesta bat azaltzen zaigu trantsizio demokratikoak euskal gizarteari ekarri zizkion aldaketak azalduz.

Lau puntu dira ikergai nagusiak:

- a. bortxak betetzen duen lekua mundu sinbolikoan eta kulturean.

Biolentzia fisikoaz eta sinbolikoaz hitz egin beharko genuke. Alde batetik, fisikoan (konnotazio sinbolikoez josita dagoena) biolentzia instituzionala eta anti-instituzionala dugu. Beste aldetik, sinbolikoan, presio kulturala eta linguistikoa. Biolentzia biek izugarritzko eragina izan dute gizartean.

- b. bizitzaren pribatizazioa eta arrazionalizazio politikoa.

Mendebaldeko politika modernoaren ezaugarrietako bat gizartearen eta politikaren arteko bereizketan datza. Eguneroko bizitzaren despoltizazio iraunkorra, gizartearen interes progresiboa gai pribatuetan eta politika gizartetik ezberdindua egotea da ematen ari den prozesua.

- c. azken belaunaldiaren sarrera bizitza sozio politikoan.

60. hamarkadatik aurrera gizarte aldaketa garrantzitsu bat gertatzen da gizarteratze prozesuaren ikuspegitik. Nazionalismoak garrantzia hartzen du gizartean, hainbat irudi nazionalista leku publikoetara heldu arte.

- d. Euskal Herrian ematen den asoziazio sarea.

Trantsizioaren ondoren martxan jartzen diren instituzio eta politika aldaketak izango dira aztergai.

Ikerketaren ondorioak argiak dira: euskaltzaletasunaren eta euskal nazionalismoaren biguntasunaren handitze progresiboa demokraziaren arrazionaltasunaren ondorioz.

3. HIZKUNTZA: NORTASUN KOLEKTIBOAREN ARDATZ

Euskal nazionalismoa eta euskararen berri Benjamin Tejeria Montañak ekarriko digu bere *Nacionalismo y lengua* lanean.

3.1. Kontzeptuak

Aurreko ikerketen jarraipena da baina kontzeptuen esparruan ikuspegi kritikoagoa nabaritzen zaio. Soziologia kualitatiboan teoria fenomenologikoaren aldeko apostua egiten du, honela dio:

<La fenomenología puede ser un primer paso, apuntando una respuesta provisional al problema formulado como las relaciones entre objetividad y subjetividad en la realidad social> (Tejerina, op. cit., 21 or)

Pérez-Agote bere tesi zuzendariaren eragina nabaritzen da subjektibotasunaren alorrean.

B. Tejerinak, Perez-Agotek bezala, aipatzen du ezin direla alde aurretik definitu nortasun kolektiboa diren kultur edukiak eta egitate sinbolikoak. Egia da bai, gizarte talde baten nortasuna atributu komunetan oinarritzen dela, baina atributu hauek denboran zehar alda daitezke gizarte egoera edo testuinguru ezberdinen arabera.

Hizkuntza nortasun kolektiboaren ardatz nagusizat aurkezten digu, hau da, hizkuntza, elkarrekin komunikatzeko tresna den aldetik, gizarte errealitatearen zutabea da.

3.2. Helburuak eta metodoak

Honela aipatzen du berak, Tejerinak, oinarrian izango duen tesia:

<La tesis que sostendré es que el euskara ha venido retrocediendo históricamente, tanto en extensión geográfica como en espacios de uso, hasta llegar a ser minoritario en ciertos espacios territoriales, incluso en ámbitos de utilización en los que ha sido vehículo tradicional de comunicación.>

Egileak hiru helburu ditu ikerketa honetan:

1. Noiz eta zergatik ematen den euskararen komunikazio funtzioen galtzea.
2. Jakitea hizkuntza nola baloratu den komunikazio tresna gisa, batez ere frankismo ondoren.
3. Zehaztea hizkuntzari buruz egiten diren irudi eta balorazio anitz eta konplexuak, batez ere frankismo ondoko epealdian.

Azterketa guztian ahalegintzen da argitzen euskara eta euskal nortasunaren arteko harreman historikoan dagoela hizkuntza aldaketaren oinarria.

Hizkuntzaren alde objektiboa aztertzerako orduan datu estatistikoetaz baliatzen da, alde subjektiboa aztertzerako, ordea, talde batzarrak eta taldea sortzea ezinezkoa zenean, bakarkako elkarriketetara jo dute. Hiru bariabile bereizten dira hainbat irudiren definizioa bilatzerako orduan: adina, egoera linguistikoa eta testuinguru soziolinguistikoa.

Azterketa historikoak leku zabala dauka Erdi Arotik gaur egunera arteko prozesu historikoa dakar.

3.3. Ondorioak

Tesi nagusia da euskara geografi hedadura eta erabilera aldetik izugarritzko galera izan du. Frankismo garaian are gehiago. Baina egoeraren larritasunean galera horretaz jabetzeak hizkuntzaren funtzio baloratiboei zein komunikatiboei positiboki aldaketak eragiten dizkio. Egilearen ustez, gakoa euskara eta euskal nortasun kolektiboaren artean mamitu behar diren harremanen baita bilatu behar da.

Euskal gizartean gaztelania nagusi den heinean eta euskara galduz joan ahala euskara komunikazio tresna bezala errebindikatzen da nahiz eta gehiengoen hizkuntza ez izan. Hemen kokatzen du euskal nazionalismoaren eta euskararen arteko lotura.

<La lengua parece ser uno de los elementos recurrentes que mueve la demanda de reconocimiento por parte de los movimientos nacionalistas, y sobre el que descansan las representaciones sociales de su identidad colectiva.>

Sei arotan bereizten da euskararen galera edo atzerakada:

1. Erromanizazioaren garaia, latina. Hemen Tovarrek hitzak ekarriko ditugu gogora:

<hoy estamos seguros [...] de que el vascuence es lengua indígena de la región donde vive todavía. Podemos afirmar [...] que los romanos ya encontraron allí el euskera. Podemos también decir que no hay duda de que los territorios de vascones, caristios y várdulos [y posiblemente de autrigones] fueron ya entonces, por lo menos en su parte septentrional, territorio de lengua euskara.⁵>

Autore gehienak ados daude erromatarrek iritsi aurretik euskararen lurraldea gaur egungoa baino askoz zabalagoa zela. Corominasek baieztatu zuen Katalunia eta Aragoiko lurraldeetan hitz egiten zela berandura arte. Enkarterrietatik haratago ilunagoa izan arren esaten da Kantabrian eta Asturiaseko hizkuntza ere bazela. Hala eta guztiz ere euskararen herrian ez zuen eragin berezirik ekarri erromatarrek, bereziki galera nagusia Kantabrian eta Asturiasen eman zen.

2. Gizarte estamentalaren eta kormertzio hirien sorrera: XI-XV. mendea.

Hemen hasten dira agertzen izugarritzko eragina izango dituzten bi faktore: alde batetik, hirien sorrera eta elizaren eta nobleziaren jarrera linguistikoak. XII. mendera arte latinez idazten da eta euskara modu informalean hitz egiteko erabiltzen da. Goi mailako gizarteak, hau da, nobleziak, burgesiak eta elizak, erromantzearen aldeko apustua egin zuten, gerora gaztelania jasoz.

3. Gizarte tradizionalaren krisialdia eta modernizazioaren aurrekariak: XVItik XVIII. mendera arte.

Garai honetan bi ezaugarri dira aipagarrienak: alde batetik, egoera linguistikoaren kontzientzia jasotzea eta ondorioz, hizkuntzaren apologia; bestetik, bazterketa prozesu bat, errepresioa eta ahaztea bereziki instituzio eta organismo publikoen eskutik.

4. Gizartearen modernizazio prozesuak: XIX eta XX. mendeko lehen laurdena.

Faktore ekonomikoek industrigintza eta hirigintzaren loratzea ekarriko dute eta honen eraginez inmigrazioa ere. Bestalde, foruen deuseztapena emango da. Bi faktore hauek izugarritzko eragina izango dute euskararen egoera linguistikoan.

5. Nazionalismoa eta hizkuntza frankismoaren garaian.

Eragina izango dute gizarte faktoreak errepresioa eta modernizazioa izango dira. Gure historiaren kapitulu latzenetara heltzen gara. 1950. hamarkadan industrializazio prozesuaren muina ematen da Euskal Herrian honekin batera inmigrazio uholdeak datoz.

⁵ Antonio Tovar, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madrid, Alianza, 1980, 194.or.

Inmigrante hauek bereziki Espainiako nekazal guneeetatik etorriko dira Bizkaian eta Gipuzkoan kokatuz. Inmigrazioak eragin izugarria izan zuen eta dauka gaur egungo egoera soziolinguistikoan.

6. Frankismo ondorengo epealdi demokratikoa, zehazki 1981 egoera hau zegoen:

<una fuerte implantación en Guipuzcoa, un grado menor de euskaldunización en Vizcaya y una extrema devilidad en Álava>

Inkestaren bidez jasotzen dituen datu subjektiboak ondorengoak dira:

- a. Euskararen profesionalek uste pessimista agertzen dute, aurrera egin ordez, atzeraka goaz; euskararen egoera frankismo garaikoa baino oraindik okerragoa da. Nahiz eta gune ez euskaldunetan euskaren erabilera sendotu den eta leku publikoetan presentzia areagotu den tradizionalki euskararen bizilekua izan direnetan gutxitu egin da.
- b. Euskal lurraldeko euskaldunek nahiz erdaldunek, aldiz, arras kontrako iritzia daukate, guztiz positiboa. Baina ez da ematen eremu guztietan berdin, hau da, adinaren aldetik gazteenak dira hizkuntzaren berreskurapenaren protagonistak. Lurraldeen aldetik, bultzada nabaria da euskaldunak ez diren guneeetan baina ez gune euskaldunetan.
- c. Hizkuntza komunikazio tresna bat da, baina elementu parte hartzaile bat ere izan daiteke, sinbolo bat banakako komunitate batentzako. Hizkuntzaren kasuan, sinboloa izatea hizkuntza horretan hitz egitean datza. Herri bezala identifikatzeko hizkuntza bat dugu. Baina arriskutsua izan daiteke hizkuntzaren balore sinbolikoa barneratzea azkenean onartu daitekeelako bere balore sinbolikoa soilik eta ez bere errealitatea. Hau da, balore sinboliko sendoa izatea baina ez izatea balore komunikatiborik, ezta erabilera eta ikasketa hizkuntza ez izatea.
- d. Elebakartasun eta elebitasunaren gainean, badirudi elebitasunari buruzko diskurtsoa, gizarte egileek hizkuntza gatazkari buruz egindako definizio bat baino gehiago, politikariek egindako arrazionalizazio ariketa bat dela. Badirudi elebitasuna ez dela onartua izan helburu politikotzat bezala.
- e. Euskararekiko irudiak asko irabazi badu ere gizarte sektore urbanoetan eta kultura landuaren barrutian, esan behar da oraindik balorazio sinbolikoaren mailan gaudela eta horri ez dagokiola neurri berean balorazio komunikatiboaren hazkundera.
- f. Hizkuntza bat ikasterako orduan hainbat motibazio ezberdin daude, euskararen kasuan Tejerinak honako hauek aipatzen ditu: lingusitiko-kulturalak, pragmatikoak, sinbolikoak eta ideologiko-politikoak. Adituen ustez, garrantzitsuenak pragmatikoak eta sinbolikoak dira.

Tejerinak Pérez-Agotek ateratzen duen ondorio bera plazaratzen digu, hau da, euskarak ez dauka funtzio komunikatiboa ziurtatua etorkizunean irudi sinbolikotik harago.

II. AZTERKETA EZ KUANTITATIBOA:

Oso zabaldua dago gaur egun gizartea objektibotasunez aztertzeko metodorik zientifikoena kuantifikazioa dela. Iparramerikatako funtzionalisten eraginez alegia ikerketa enpirikoak ugariak dira.

1. NAZIOAREN ZENTZU DINAMIKOA ETA HISTORIKOA

Jokin Apalategiren liburuaren izenburua dugu. Izenburuak adierazten digun bezala nazioaren kontzeptua dinamikoa da, asimilazio indarrei aurre egite eta nortasunari eusten dion mugimendu kolektibo bat da.

<Las naciones en movimiento de la Europa actual son colectivos étnicos y nacionales que en un momento preciso de su historia perdieron el control de su propia institucionalización para ser sometidos a una Institución ajena, a saber, al Estado nación> Apalategi, op. cit., 5.or)

Orain arte Tejerinak eta Pérez-Agotek estatikotasun bat proposatzen digute baina Apalategik guztiz kontrakoa dakar, hau da, dinamikotasuna. Nahasketaren oinarrian "estatu nazioari, boterea eta legezko bortxa berarekin dituelako, errealitate objektiboa aitortzen zaio, eta nazio etnikoa, aldiz, mundu subjektibo-sinbolikoaren barrutian hesitzen" dago.

Mugimendua dagoela erakutsiz nazio bat dagoela erakusten da. Nazioa gizarte fenomeno konstagarria den heinean definigarria da.

Apalategiren helburua euskal nazioari bere subiranotasuna erdiestea galarazten dioten egiturazko gizarte faktore batzuk badaudela frogatu nahi du. Kausa historiko batzuen ondorioz gaude gaur egun gauden tokian. Okupazioa eta erresistentziaren eraginaz arituko gara oraingo honetan.

1.1. Okupazioa.

Gatazkaren aro historiko ezberdinak bereizteko hiru hegemoni mota darabil: soberanoa, konpartitua eta konfiskatua.

1.1.1. Euskal nazioaren eraikuntza. Botere monarkikoaren unea.

Apalategiren ustez, Euskal Herriak bere naziotasuna erromatar kolonizazioa gainditu ostean lortu zuen Akitaniako Dukerriarekin VII. mendean eta ondoren Nafarroako Erresumarekin VII. mendean. Botere monarkikoaren bitartez izan genuen euskaldunok batasun politikoa. Baina Apalategiren esanetan "ez zen Europako beste estatu estamentalen antzera indartsu izatera iritsi".

1.1.2. Hegemonia Konpartitua: Foruzaletasuna.

XV. mendetik XVIII. mendera arteko arazoaz ari gara. Euskal Herria bitan zatituta dago XVI. mendean iparraldean Frantziako monarkiaren esku egonik eta Nafarroa, berriz, Gaztelakoari.

Garai honetan bereiztutako euskal lurralde biak foruen jabe ziren eta subiranotasun konpartitu bat zuten. Zentralismoaren ondorioz, foru eskubideak murriztu zituzten erregeak eta erresistentzia ez zen nahikoa izan geldiarazteko.

1.1.3. Hegemonia konfiskatua: Estatu nazioarekiko menerapen unea.

Titulu honen pean sartzan ditu XVIII. mendetik gaur egun arteko gertakariak. 1879ko iraultza frantsesarekin estatu modernoaren ideia zabaltzen da etnia ezberdinek bazterketa bideratuz. Estatu bat eta bakarra eta honen uniformetasuna bultzatuko da. Hainbat jakitunek aipatu izan dute nazionalitate menperatuek ez zeukatela etorkizunik baina hori ez da horrela gertatu. Hegel eta Marx ere bat zetozen. Hona hemen Hegel-en hitzak:

<Estos restos de nación pisoteados despiadadamente por la marcha de la historia, como lo dice Hegel, estas *basuras de pueblos* son siempre y lo seguirán siendo, hasta su completa asimilación o desnacionalización, los portadores fanáticos de la contrarrevolución, lo mismo que toda su existencia es una protesta contra la gran revolución histórica> (Gotzon Garaten aipua, in Marx y los nacionalismos separatistas, San Miguel, Bilbao, 1974, 167.or)

Oraingo nazio-mugimenduen gorakada aztertzeke garai hartako kointura historikoa aztertu behar dugu. Batasuna inposaketaren bidez eman zen eta ez, J. J. Rousseauk 1762an Contrato Social-en aldarrikatu bezala, komunitate etniko eta nazionalen elkarrekin egindako konbertsio edo akordioaren bidez. Arazoa garai hartan konpondu gabekoan datza.

Apalategiren ustez estatu-nazio demokratiko guztien ibilbide sozio historikoa ez da izan berdina. Lau bereizketa egiten ditu:

1. Frantziak eta Espainiak zentru bat eta estatu bat daukate.
2. Italiak estatu bat zentzurik gabe.
3. Ingalaterrak eta Estatu Batuek zentru bat egiazko estaturik gabe.
4. Suitzak ez zentru ezta estatu osorik ez du.

Estatu eredu horien arabera hiru demokrazia mota ezberdintzen ditu:

- a. Ordezkapen demokrazia, zeinaren arabera hiritarrek bere subiranotasunaren praktika hauteskundeetara mugatzen baitu.
- b. Gestio-demokrazia, irizpidetzat konpetitibitatea daukana, zeinetan baztertuak beti galtzaile ateratzen baitira.
- c. Partehartze-demokrazia, zeinaren arabera hiritarrek etengabe parte hartzen baitute gizarteko erakundeetan borondatezko taldeen edo mugimendu sozialen bidez.

Estatu eredu ezberdinak egotea demokrazi mota ezberdinak izatea dakartza. Baina gertatu dena da herri-subiranotasunari dagokion espazioa estatuak usurpatzen joan dela.

Paulo Iztuetaren aipamena ekarri nahi dut hona : "Análisi honetan ezkondu egiten dira Jokin Apalategiren eta Mikel Urkolaren tesia, esatean nazio-arazoari buruzko gizarte-

prozesuak historiaren argitan planteatu behar direla dinamiko dialektikoaren zentzuan, nazio gatazkak estatu-nazio demokratikoetan gizarte arazo epifenomeno eta patologikoetara murriztu gabe, eskola funtzionalista eta konfliktualista interklasistetan ohi den bezala” (Iztueta, op. cit., 47.or.)

1.2. Erresistentzia: nazio etnikoen askatasun unea.

Euskal Herriaren historian zehar erresistentzia mugimendu aktiboa egon da hegemonia konpartitua eta konfiskatua iraun duen bitartean.

<La reacción vasca ante la conquista no tardará en expresarse: la primera resistencia se formulará como la teoría de la nobleza universal de los vascos o de la democracia vasca original. Más tarde se mutuará eb fuerismo. Y por último con la pérdida de los antiguos fueros y libertades regionales se transformará en nacionalismo> (Ibid., 57. or)

Jokin Apalategik, nazio askapenerako mugimenduaren ezaugarriak zehazten ditu bere liburu honetako ekarpen espezifikoko gisa, erresistentziaren bidez gauzatuz datozenak, ez bakarrik maila sinbolikoan, baita objektiboan ere.

1.2.1. Arrazionaltasuna eta dinamikotasuna.

Sabino Aiestaranen artikuluan ikusi da nola euskal nazionalismoa PNV alderdi historiko moderatuaren eta HB mugimendu gazte errotikoaren artean polarizatua aurkitzen den. Jon Apalategiren ustez PNVren helburua gizarte soziopolitiko eta ekonomiko klasista eta liberala eraikitzea da. Hizkuntza egoerari buruz uste du hau osatzeko funtsean gaztelanian oinarritutako hizkuntza eta kultur sistema batez baliatuko dela euskararen egoera diglosikoa mantenduz. Bistan da nazionalismo historiko honek, batik bat egungo sistema demokratikoan funtsezko partaidetza duelako, ez duela halako arazorik sortzen estatu politikan onartua izan dadin, ez da arrazionaltasunaren inguruko auzitan sartzen. Ezker abertzaleak biltzen dituen Nazio Askapenerako Euskal Mugimenduak zailtasun handiagoak ditu, oraingo estatu sistemarekiko haustura aldarrikatzen baitu. Horregatik ukatzen zaio honi besteari aitortzen zaion arrazionaltasuna.

Nazio askapenerako mugimendua modu askotara erabili izan da, eta daiteke. Zentzu orokorrean hartuta, esan dezakegu mugimendu antolatu bat izaten dela, lurralde komunitatearen izenean diharduena eta helburutzat duena indarrean dagoen estatuaren legitimitatea auzitan jartzean horretarako, gehienetan, bide legez kanpoak erabiliz. Bi mugimendu mota bereizten dira: bata askapen koloniala da, metropoliko estatu okupazioaren kontra borrokatzen dena, eta bestea askapen nazionala, helburutzat, erregimen politikoaldatzea edo, estatu baten barruan boterea lortzea duena. Bada, ordea, beste hirugarren mota bat ere, bietatik zerbait duena eta horixe bera da nazio etnikoei dagokien askapen mugimendua. Ez da koloniala, baina horrekin komunean du estatu okupatzaitetik askatzea; era berean, helburu bakarra ez da azpian daukan estatutik

askatzea, baita gizarte egiturak aldatzea ere, eta horretan izan dezake parterik estatu barruan ematen diren aldaketa iraultzaile edo erreformistetan.

Edozein gizarte mugimendua tipifikatzeko orduan, hiru printzipio aipatu ohi dira; nortasuna, oposizioa eta totalitatea. Jokin Apalategiren ustetan hiru printzipio hauek bere osotasunean betetzen dira NAEM:

1. Nortasuna, hizkuntza, nazio kontzientzia, nazio erresistentzia, independentzia eta iraultza sozialistaren bidez.
2. Bi estatu zapaltzaileen kontra jardunez, baina borroka honetan inmigratuak aliatuak izango direlarik eta euskal komunitateko klase burgeseko elementu batzuk, aldiz, etsaiak.
3. Bere errebindikazio espezifikoak giza eskubideetan, foruetan, tradizioan eta teoria pertsonalistan oinarrituz, Beraz, hala dio J. Apalategik "esta lectura del MVLN nos conduce a reconocer la racionalidad de un conflicto social" (Apalategi, op. cit. 173. or)

Jokin Apalategiren ustea da nazio askapenerako mugimendu batek hiru aro hauek zeharkatu behar dituela:

- a. Aberria pausoka aurkituz joatea.
- b. Besteengandik edo atzerrikoengandik desberdintzea.
- c. Maila intelektualean eta afektiboan koordinazio tresna bat eraikitzea, zeinek, azkenean, nazioarteko harremanak gauzatzea ekarriko baitu.

Euskal nazionalismoaren mugimenduan hiru printzipioak barneratzen dira, eboluzio garbia ematen da: lehen fasea, Sabino Aranak nazio printzipioak eraiki zituen XIX. mende bukaeran, baina estatu nazionalaren zapalkuntza inmigratioarekin nahastu zuen; gero Acción Nacionalista Vasca eratu zen 1913an, gerrate aurrean, erakunde akonfesionala eta sozialista gisa garatuz etorri dena; azkenik, 1959an ETA mugimendua sortu zen, inmigranteen eskubideak bezala obligazioak ere aldarrikatu zituen, euskal nortasunari oinarritzat langileria eta euskal kultura hartuz.

Lehen Sabino Ayestaran artikuluan ikusi den bezala, HB da nortasun baztertzaileren prototipoa aurkezten duen bakarra, beste alderdi guztiek izaera barne-hartzaileren ispilu liratekeen bitartean. J. Apalategiren azterketa historikoa justu alderantziko ondorio honetara iristen da: alegia, euskal arrazionalismoak, orotara hartuta, errebindikatzen duen nortasuna ez dela baztertzailera, barne-hartzailera baizik. Nortasun barne-hartzailera eta baztertzaileren arteko dilema, zapalkuntza eta askatasunaren arteko oposizio terminoetan planteatu behar da eta, zentzu honetan, bistan da euskal nazioarekiko jarrera zapaltzailea duenak ordezkatzeko duela nortasun baztertzailera.

<Que la reivindicación identitaria es fatalmente excluyente del otro? No. Es liberación del yo dominado, y solamente es exclusión del otro dominador. Pues indiscutiblemente toda reivindicación identitaria se desarrolla en tanto que movimiento social entre la liberación y la opresión. El otro como liberación no es objeto de oposición para el movimiento identitario en sí> (Ibid. 192-193.or)

Puntu honetan, oso ondo nabarmentzen da zein alde handia dagoen hurbilketa kuantitatiboan eta ez-kuantitatiboan arteko ikerlanetan, zeren, azken batean, jokoan dagoena ez baita bakarrik kontzeptu bati buruz inkestak zer pentsatzen duten jakitea, baizik eta, batik bat, kontzeptu horren edukiaz nola arrazoitzen den zehaztea.

1.2.2. Hiritasuna eta nazionalitatea.

Gai honetan Jokin Apalategi bi tradizio bereizten ditu: Alemaniakoa eta Frantziakoa. Ezberdintasuna hiritartasuna lortzeko baldintzetan datza. Lehenengo eredu nazio errealitate etnikoentzat hartzen dute; bigarrena, ostera, borondatezko onespen batean finkatzen du nazionalitatea.

Baina oraindik estaturik ez duten nazioetan nola planteatu behar da hiritartasunaren arazoa?

1.2.3. Subiranotasuna.

Estatu-nazioak menpean hartuak ditu bai gizarte zibila bai nazio etnikoak, biak askatu beharrekoak.

<La soberanía ha de ser devuelta a la nación o la sociedad civil, en general, y a las naciones étnicas, en particular>. (Apalategi, op. Cit., 32. or)

Askotan, M. Fernández Enguitak (La escuela a examen, Eudema, Madril, 1990, 134-138.or) egiten duen bezala, funtsezko kontraesan nagusia eskubide pertsonalak, dufragio unibertsala eta askatasun zibilak aldarrikatzen dituen sistema demokratiko batean, estatu demokratikoaren eta gizartean klase zuzendariak ezartzen duen produkzio sistema autoritarioaren arteko oposizioa murrizten da funtsezko gizarte kontraesan nagusia; estatu-nazio horrek nazionalitateekiko daukan demokrazi defizita, ordea, ahaztu egiten da edota, nazionalista estatistengan ohikoa denez, gaindituztat ematen da.

2. EUSKARAREN BERRESKURAPENA. HOLOLINGUITIKA.

Agian José Sánchez Carrión, gurean Txepetx izenez ezagunagoa dena, izan da Euskal Soziolinguistikaren alorrean sistemazio teorikoan gehiena saiatu dena eta, maila horretan, oihartzunik zabalena izan duena. 1970. urtean lanari ekin zion etorkizun linguistiko orekatua irudikatzen duen teoria garatzen. Hizkuntzalaritza ikasketak egin arren diziplinartekotasunaren sareetan dabil. Badirudi haren tesiek halako korrante moduko bat ere sortua duela, J. M. Odriozolak <diskurtso humanista> deitzen duena.

2.1. Ikasketa-teoria: motibazioa, ezagutza eta erabilera.

Diskurtso soziolinguistikoaren lehen urratsa hizkuntzen ikasketan ezartzen du. Ikasketa teoriaren helburua hizkuntzak ikastean egiten den ibilbidea eta betetzen diren baldintzak argitzean datza. Hiru faktore dira hizkuntza ikasketan parte hartzen dutenak:

motibazioa, ezagutza eta erabilpena. Hauek elkar lotuta daude eta zirkuitu bat osatzen dute. Haren tesia da, euskararen berreskurapen osoa lortzeko beharrezkoa dela hiztun osoen kopurua handituz joatea esparru sinbolikoaren barruan.

Bestalde, bi ikasle mota bereizten ditu: jatorriaz hizkuntza horretako hiztunak direnak (<nativo culto o culturizado>), hots, ikasketa primarioa jaso dituztenak eta jatorriz beste hizkuntza batekoak direnak (<adulto nativizado>), ikasketa sekundarioa dutenak. Lehenengoen, erabilera, ezagutza eta motibazioa berezkoak dituzte. Bigarrenengana, ostera, motibazioa, ezagutza eta erabilera induzitua dute. Bi talde horietan hizkuntza gaitasunik handiena dutenek elkar hartzen dute eta beroriek osatzen dute hizkuntzaren esparru sinbolikoa. Berreskurapen prozesuaren aitzindariak izango dira hauek.

<La vitalidad de una lengua no depende tanto del número absoluto de hablantes cuanto de la proporción que estos *hiztun osoak* (hablantes completos) representan en el conjunto total.>
(José Sánchez Carrión, op.cit., 38.or)

Euskaldun osoaren garrantzia azpimarratzen da ekarpen gisa. Gainera euskaldun berri eta euskaldun zahar dikotomia hausteko asmoz edo, eta Kintanak eta Tobarrek aipatzen zuten euskaldun eskolatua <euskaldun ikasia> Txepetxek <euskaldun osoa> bezala definitzen du.

Horien azpian daude euskaldun ez-osoak edo erdi-euskaldunak; eta horien azpiago oraindik ez-euskaldunak.

Bigarrenik, Txepetxek baieztatzen du <euskaldun osoak> bakarrik direla euskaldun eta <euskal> deituraren izendapena jaso dezaketenak. Euskararen gaitasun guztiak dituzte, gaurko kultura modernoa eta nork bere kulturazko biziera euskaraz adieraziz eta biziz.

2.2. Hizkuntza normalkuntza.

Bigarren zatiak hizkuntza gatazka eta normalkuntza ditu aztergaitzat. Hemen, ondorengo lau urratsok bereiz daitezke haren ikuspegian: hizkuntza tipoak eta berorien arteko elkarrekintza, hizkuntza normalkuntzarako printzipio nagusiak, hizkuntza eskubideak eta, azkenik, oztopoak eta aterabidea.

2.2.1. Lehen urratsa: Hizkuntza tipoak eta berorien arteko elkarrekintza.

Txepetxek, hizkuntza tipoen arteko elkarrekintzaz mintzatzerakoan, hizkuntzaren alderdi objektiboak hizkuntzaren muina ukitzen du. Muin hau hizkuntza sistema bera da, zeinaren bidez, zeinu-sistema batez baliatuz, gizakiak bere esperientzia eta pentsamendua adierazten baititu. Hizkuntza baten subjektua, aldiz, hiztunek osatzen dute, hizkuntzari testuinguru espazio-tenporala ematen diotelarik. Hizkuntzaren bi alderdi besterik ez dira, elkar osatzen dutenak.

Normalkuntzarako abiapuntua, ikasketa teoriarekin harian datorrena, hiztuna da, indibidua, alegia. Hiztunen komunitatetik abiatzen da normalkuntza.

Baldin eta hiztunak badira normalkuntzarako subjektuak, zutabe nagusiak, jakin behar dena da ea euskaldunen hizkuntza komunitatea nola osaturik dagoen. Maila honetan lantzen du Txepetxek hizkuntza motei eta hauen osagarritasunari (<optimización>) buruzkoa.

Hizkuntza motak, kopuruaren aldetik begiratuta, bost dira: eleurrekoak, elebakarrak, erdielebidunak, elebidunak, anbielebidunak. Honela definitzen ditu horietariko bakoitza:

1. Eleurrekoak: Ez dute oraindik inolako ikaskuntza ibilbiderik ezein hizkuntzatan.
2. Elebakarrak ("monolingües"): Beren ikaskuntza ibilbideak eso zirkuituak hizkuntza bat bakarra besarkatzen du.
3. Erdielebidunak ("semi-bilingües"): Bi ikaskuntza ibilbide dituzte, baina horietako bakoitza hizkuntza desberdinean, eta beraz ikaskuntza horietariko ezeinetan osatu gabe.
4. Elebidunak ("bilingües"): Ikaskuntza zirkuitu oso bat dute hizkuntza batean eta ibilbide bat (berezkoa zein kulturala) bestean.
5. Anbieleduna ("bilingües"): Bi ikaskuntza zirkuitu oso dituzte, hau da, ikaskuntza osoa bi hizkuntzetan.

Hizkuntza plangintzaren egiteko nagusia, hizkuntza tipologia desberdin horien hobekuntza gauzatzea datza. Honek esan nahi du deus ez dakiena elebidun oso bilakatzen dela. Hauxe da, hain zuzen, hizkuntza normalkuntza.

Hizkuntza normalkuntza, azken finean, erbesteratua dena hobekuntzaren bidez etxeratzea besterik ez da. Prozesu honetan oinarrizko hiru paradigma daude:

- 1) Hasierako hizkuntzaren erbesteratzea da lehengoa, lurraldeko hizkuntzaren kultur transmisioa ebakitzen baita eta horren esparru sinbolikoa apurtu, diglosiaren bidea zabalduz.
- 2) Osagarritasun-paradigma da bigarrena, hiztunak lurraldeko hizkuntza erabiltzea eta hor gizarte-funtzio guztiak betetzea du helburu. Hizkuntzaren berrezarpena suposatzen du.
- 3) Aberrirapen-paradigma da hirugarrena, hizkuntza minorizatuak egoera normalizatua lortzera bideratzen du hizkuntza komunitatean.

Esan behar da Txepetxek ordezkapena glotofagiarekin berdintzen duela eta berreskurapena ekologia dinamikoarekin. Azken urteotan hizkuntzaren ekologia kontzeptua gogor sartu da Euskal Herriko soziolinguistikoa.

2.2.2. Bigarren urratsa: Hizkuntza normalkuntzarako printzipio nagusiak.

Normalizazioaren helburua hizkuntzaren garapen osoa lortzea da. Txepetxek garatzen duen tesia da, "ernamuin-gogoetak" (*Germinal seeds*) kontzeptuaren bidez hain zuzen, hizkuntzaren normalkuntza "hedapen eta ugalpenetik" datorrela, azken batean. Ernamuin-gogoeta horiek dira hizkuntza normalkuntzaren edo berreskurapenaren axiomak deitzen dituenak.

Normalizazioa hiru axioma edo ideiatan oinarritzen da:

1) Lehen axioma, beharraren axioma da, eta boterearen hizkuntzak ezarritako desberdintasunaren printzipioari kontrajarriz definitzen da.

Bestalde, hizkuntza botere hori lortzea da helburu nagusia, ondorioak hurrengoak dira:

Lehenengoa, euskarak beharrezko duela baldintza sozio-politikoak ezarriak izatea euskaldun osoek euskara osoki bizi dezaten, ez gizabanako gida bakarrik, gizarte-talde gisa baizik. Hizkuntza boterearen gizarte banaketa egiteak inplikatzeko du, lurralde euskaldunak gizabanakoak euskararentzat garrantzirik gehiena dutenak direnez gero, botere politikoak hizkuntza komunitatearen beharrezanetara moldatu behar du, politikariek, euskaldunak zerbitzatu behar dituzte.

Bigarrena, euskaldunen hizkuntza komunitateak barrutik kanpora hazi behar duela da. Honela bideratzen da euskaldun osoen kopurua gehituz joatea.

Hirugarrena, talde hauek elkar konektatuta egon behar izana dutela eta talde bakoitzak bere lekua bete behar duela, talde batek besteari funtzioa ordezkatu ez dezan da.

2) Bigarren axioma, erantzukizunaren axioma da, agintearen printzipioari kontrajartzen zaiona. Axioma honek suposatzen du, Txepetx baitan behintzat, hizkuntza komunitate minorizatu bat ezin egon daitekeela bere egoeraren konponbidea politikatik, noiz helduko zaion zain. Kontuan izan beharrekoa da estatuak bere trinkotze propioa bilatzen duela beti. Hizkuntza komunitateari benetako boterea hizkuntza kontzientziak ematen dio eta honek bultzatzen ditu Gobernuak normalkuntzarako plangintzak bideratzen.

Hemendik ateratzen den ondorio nagusia da euskara ez duela salbatuko "estatu hedakorrak", kasu honetan estatu-nazioak, alegia. Agintean dagoen taldearen hizkuntzari bere muga politikoen barrutian gainerako hizkuntzen kalterako lehentasuna ematen dion estatu mota honi estatu hedakorra izena ematen dio Txepetxek. Honela definitzen du:

<Todo aquél cuya naturaleza hace posible que la minoría en el poder dentro del estado se sirva, cuando tal cosa conviene a sus intereses, de la comunidad lingüística a la que se adscribe para degradar, desintegrar y aniquilar a las otras comunidades lingüísticas naturales atrapadas en su seno.> (Txepetx, op. cit., 206. or.)

Mundu enpirikora etorrira, esperantzarik ez da ezarri behar, ez estatu zentralistetan, ezta egun indarrean dauden Eusko Herriko botere gune autonomikoetan ere. Ezta biharko euskal estatu hipotetiko batean ere. Oraingo euskal autonomia euskararen bizia ziurtatzeko gauza ez bada, are gutxiago izango da etorkizuneko.

3) Hirugarren axioma helburuaren axioma da, eta desakortasunaren printzipioari kontrajartzen zaio. Axioma honek suposatzen du hizkuntza komunitate baten normalkuntza, berez, interesatzen den zerbait dela, ez bakarrik komunitate afektatuari bakarrik, baita, azken batean, estatuari berari eta, oro har, gizateriari, zeren gisa garapena baitakar. Hizkuntza lantzeak gizakia lantzea da, hots, aberastea.

Beraz, desberdintasunaren, agintearen eta desakortasunaren hiru printzipio horiek dira estatu hedakorrak sustatzen dituenak eta, hurrenez hurren, hizkuntza komunitateak sustatzen dituen beharraren, erantzukizunaren eta helburuaren hiru axiomak desegitera zuzenduta daude. Elementu aurkariak dira.

2.2.3. Hirugarren urratsa: Hizkuntza eskubideak.

Txepetxen ustez hizkuntza baten garapen osoa emateko hiru eskubide natural hauek bermatuta egon behar dira:

1. Hizkuntza bakoitzak bere lurraldean bere hizkuntza komunitatearen hizkuntza osoa izateko duen eskubidea. Eskubide hau planeta-ekologian oinarritzen da, zeinaren arabera, gizakia, osotasun gisa, hizkuntza pluraltasunaren bitartez bakarrik osatzen baita.
2. Hizkuntza komunitate orok hurrei beren hizkuntza transmititzeko duten eskubidea. Eskubide hau berdintasun printzipioan oinarritzen da, zeren hizkuntza komunitate naturalak estatu zaharrenak baino zaharragoak baitira, izan.
3. Gurasoek beren hurrei beren hizkuntza transmititzeko duten eskubidea. Eskubide hau psikologia indibidualerako integritate printzipioan oinarritzen da, zeinaren arabera, hurren munduarekiko ezagutza gurasoen bidez egiten baita.

Honela adierazten du Txepetxek bere lanean:

<Uno ese l derecho de toda Lengua a ser en su territorio lengua completa de su comunidad lingüística. Otro, el derecho de toda comunidad lingüística a recibir y transmitir su lengua de modo completo. Y el tercero, el derecho de los padres a transmitir su lengua a sus hijos.>
(Txepetx, op. cit., 304.or.)

Txepetx bat dator Xabier Vilhar Trihorekin baieztatzean hizkuntza komunitatearen eskubideak pertsonalen aurretik pasatzen direla. Guzti honek aplikazio zuzen du euskararen kasuan. Izan ere, Espainiako konstituzioak, bere 3. artikuluan, gaztelaniaren beharrezkotasuna ezartzen duen bitartean, estatuko bere hizkuntzen soilki <ofizialtasuna> aitortzen baitu. Honela, Euskal Komunitate Autonomoetako hizkuntzak, gaztelaniarekin gehienez ere ko-ofizialak izango dira, maila pertsonalean erabil daitezkeenak, baina inola ere ez nahita ez erabili beharrekoak edozein kasutan estatu-lurralde osoan zehar. Aldarrikatzen dena ez da hizkuntza berdintasuna, komunitate autonomikoen estatuarekiko mendekotasuna baizik. Konstituzioaren ondorioz sortutako hizkuntza legeria autonomiko desberdinek, aldaketa xume batzuk salbu, gaztelaniaren ezinbesteko ezarpenarekin egiten dute topo. Estatua dute muga gaindiezina.

2.2.4. Laugarren urratsa: aterabidea.

Hizkuntza normalkuntzaren barruan, laugarren urrats handia hizkuntza atzerakadari aurre eman eta berreskurapen prozesuari eragiten hasten da. Orduan bakarrik emango zaio hasiera hizkuntza orekari. Joera aldaketa hau, "haustura tentsioaren" bidez gauzatuko da. dagoen minorizazio, narridura eta sakailazko egoetatik euskara ateratzea esan nahi du horrek.

Oraindik areago zehaztuz, normalkuntzak, ez elebitasuna, baizik eta lurralde-elebakartasuna ezartzea eskatzen du, hots, oinarritzat hartuz euskaldunen hizkuntza komunitatea soilki.

Arestian aipaturiko "haustura-tentsio" horretarako iristeko, ordea, oztopo batzuk daude, Txepetxek tapagailuak ("tapones") deitzen dituenak. Lau motakoak dira:

1. Traba politikoa, hizkuntza komunitatearen mendekotasun politikoa dakarrena. Euskaldunen aldetik, traba honen iturria da hizkuntza kontzientziarik eza edota, bestela esanda, hiztunen interes eskasa. Txepetxek lehen traba hau <discurso de la irrealidad> deitzen du eta horri <discurso de la responsabilidad> kontrajartzen dio, zeinaren helburua euskalduntasunean soilki oinarritutako mugimendu politiko-soziala gauzatzeko izan behar baita. Traba hau gainditzeko, bada, hizkuntza komunitatea trinkotu edo konpaktatzea lortu behar da, hizkuntza kontzientzia sendotuz.

2. Traba legala, hizkuntza komunitatearen mendekotasun legala dakarrena. Traba hau hizkuntza desberdintasuna legez sagaratzeko duena da, Espainiako Konstituzioko (1978) 3. artikuluan datorrenaren arabera. Lege horren parekidea da, halaber, Frantziako Konstituzioko 2. artikuluan- <Loi Deixonne> (1951) izenez ezagutzen den horretan-, datorrena ere. Lege hauek ezabatuak izan behar dute (384). Traba hau gainditzeko, bada, ezarriko daukagun legeriaren kontra borrokatzea.

3. Traba soziala, hizkuntza komunitatearen mendekotasun soziala dakarrena. Traba hau aurrekotik eratorria da eta honek komunitate euskaldunaren elebitasun soziala dakarkigu, unilaterala, indiskriminatua eta orokortua. Traba hau gainditzeko, euskarak jada galdurik dituen gizarte funtzioak berreskuratu behar ditu, bere lurraldean hizkuntza nazionala izanez, zeinetan lurralde-elebakartasuna ezarriko baita eta honen barruan, bidenabar, elebitasun pasiboa(388).

4. Azkenik, traba psikologikoa aurkitzen da, hizkuntza komunitatearen mendekotasun psikologikoa dakarrena. Traba hau nazio menderatuaren gutxiagotasun konplexuan edo auto-gorrotoan datza, hizkuntzaren gaitasun ezean alegia, zeina norbere intelektualitatea ez edukitzetik eratorria baita (389). Traba hau gainditzeko, bada, gutxiagotasun konplexuak desegin behar dira. Horretarako corpus-aren normalkuntza landu behar dute ezaguerataldeek, haustura tentsioa burutu eta gero (391).

Lau traba hauek gizarte egituratik datozenak dira, hizkuntza komunitateak hiztunen elkarrekintzen bidez gainditu behar dituztenak, baldin eta hizkuntza normalkuntza lortu nahi bada.

Aterabideari buruzkoa laburbilduz, hauxe proposatzen du: euskararentzat botereguneetatik inolako etorkizunik ez datorrenez gero, euskaldunen komunitatetik eragindako hedapen prozesuan bakarrik ezar daiteke berreskurapenerako esperantza, euskalduntasunaren gune horretan bilduz indar politiko, sozial eta kultural oro. Esparru sinboliko horretatik aterako dira lau oztopo horiek gaindituz joateko behar diren indarrak.

Hona arte Txepetxeren ekarria, zalantzarik gabe gogoeta aberatsez hornitua dena. Espezifikoki hizkuntzari eskainitako ikerlan honek merezi du hemen esandakoak sakonetik aztertzea eta azken atalean itzuliko gara bertara.

2.3. Soziolinguistika aplikatutik teorikora: jauzi ausarta.

Euskal Soziolinguistikaren sailean egindako ikerketa gehienak aplikatuak izan ziren eta esker onez etorri zen Txepetxen lan ezberdin eta berritasunez beteriko hau. Hizkuntzarekikoa sistematizatzen egin duen ahalegin teorikoa oso garrantzitsua da gaur egungo egoerarentzat. Paulo Iztuetak hurrengo ekarpenak azpimarratzen ditu:

1. Euskal Soziolinguistika sistematizatzeko lana euskal esparrutik egitean datza haren ekarpenik handienetako bat. Hizkuntza minorizatuaren normalkuntza prozesua urratsez urrats sailkatzen eta teorizatzea eta, horretarako, kontzeptuak berrikustea edota, beharrezkoa ikusi duenean, berriak sortzea da xedea. Zentzu honetan, eskaintzen dituen zenbait hizkuntza tipologia argigarri gertatzen dira, hala nola, euskaldun oso eta ez-oso, eta hortik eratorriak.

2. Lehendik esana bazegoen ere, euskararik gabe ez zegoela Euskal Herririk, euskara da euskaldun egiten gaituena. Eskatzen den bakarra da Euskal Herrian mamitua izatea edota, baita ere, euskal gaiez jardutea. Euskal intelektualitatearen praxia, ikerketa mailan bezala bizitza politiko-administratiboan egon behar du. Nagusiki bere hizkuntza bizi eta min-herri osoa, euskara falta zaion euskal hiritarra euskaldun ez den bezala. Euskaldun berriek aitortu izan dute euskararik gabe bigarren mailako euskaldunak sentitzen zirela. Herritasun-muga, bada, hizkuntzak egiten du.

3. Euskaraz osoki bizitzeko, hizkuntza nazionalak ohi duten modernotasun-status intelektuala lortu behar da. Paulo Agirrebaltzategirekin batera esaten du "euskaldun osoak bakarrik dira euskarari gaitasun guztiak betetzen dizkietenak, gaurko kultura modernoa eta nork bere kulturazko biziera euskaraz adieraziz eta biziz". Honekin esan nahi da, ez dela nahikoa euskalduna izatea, baizik eta, normalkuntza prozesuan aurrera egiteko, beharrezkoa dela euskaldun osoa izatea.

4. Hizkuntza eskubideak, azken batean, hizkuntza komunitatean oinarritzen dira. Hizkuntzaren subjektua askotan ez da izaten argia eta estatu-nazioaren hizkuntza ofizialean babesten direnak izaten dira. Hemen aipagarria da, Iñaki Larrañagarekin batera eskubide hauek "hizkuntza komunitatearen eskubide direla, eskubide pertsonala baino gehiago" bezala definitzen duela. Abiapuntutzat pertsona-eskubidea aldarrikatzen da legerian, estatukoan nahiz autonomikoetan, eta ez hura baino lehenagokoa eta eginkorragoa den hizkuntza komunitateari dagokiona. Horrela gertatzen da erdara erabiltzeko eskubidea errebindikatzen dutenekin.

5. Arrazoi osoz jokatzeko esatean hizkuntza normalkuntzan, hizkuntza komunitatearen kontzientzia, indarra, praxia, erabilera, presioa etab. oinarritzkoak direla. Kultur mugimenduen protagonismoa aipatzea eta azpimarratzea oso garrantzitsua da gaur egungo egoera ikusita, administrazioak askotan aintzakotzat hartzen ez dutelako.

BIBLIOGRAFIA

- **Iztueta, Paulo (1998)** *Euskal Nortasunaren bila: Topaketa kritikoa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- **Tejerina, Benjamin (1992)** *Nacionalismo y lengua*. Madrid: Siglo XXI de España Editores, S.A.
- **Garmendia, José A. Zuz., Parra Luna, Francisco; Perez Agote, Francisco (1982)** *Abertzales y vascos*. Madrid: Akal Editor.
- **Garmendia, José A. (1981)** *Identificación vasca y nacionalista en Euskadi*. Madrid: Akal. Universitaria.
- **Perez-Agote, Alfonso (1984)** *La reproducción del nacionalismo: el caso vasco*. Madrid: Centro de Investigaciones sociológicas.
- **Perez-Agote, Alfonso (1987)** *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*. Madrid: Ed. Siglo XXI.
- **Sanchez, Jose Maria "Txepetx" (1989)** *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- **Martinez de Luna, I. (2001)** *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. D.L.
- www.soziolinguistika.org